

LUKE-REN HAUTETSI IZATEA : BALIATU BEHARREKO AUKERA

ZER DA LUKE-A ?

LuKE-ak (Lurralde Koherentziaren Eskema - Schéma de Cohérence Territorial) lehentasun handiak finkatzen ditu lurralde orekatuago baterako : kostalde lasaiagoa, arteko bizi espazio indartua eta barnekaldeko espazio dinamikoagoak.

LUKE-a aldi berean da :

- **Iparorraz bat** norabidea atxikitzeko.



- **Elkarrizketa gune bat** adierazpen guzien errazteko eta ibilbide komuna bilakatzeko.
- **Prospektiba gune bat** ideiak probatzeko, lurraldearen etorkizunean ados jartzeko, apustu handietatik epe luzerako estrategietara pasatzeko.

NON GAUDE ?

2025eko abendoaren 11an, LUKE-a onartua izan da : orain, **abian jartzeko momentua** !



NOLA IZENDATUA IZAN LUKE-AN ?

Apirilaren 24tik maiatzaren 6a arte, Euskal Herriko hirigune elkargoak eta Seinautzeko herri elkargoak LUKE-ren Sindikatuan parte hartuko duten hautetsiak izendatuko dituzte.

- ➔ **Lan horiek interesatzen bazaituzte, jakinaraz ezazu zure auzapezari eta zure herri/hirigune elkargoari** (Euskal Herriko hautetsientzat : zure lurralde eremuak (poloak) hautagaiak bilduko ditu).
- ➔ **Edozein herriko hautetsi hautagai izan daiteke.**

ZER ERRAN NAHI DU LUKE-KO HAUTETSI IZATEAK ?

- ➔ **Inplikatzeari** : lurraldearen etorkizunean eragina duten erabakiak hartzea.
- ➔ **Herritik kolektibora pasatzeari** : herriko ikuspegiak gaintzea « lurralde handia » pentsatzeko.
- ➔ **Eskuragarri izateari** : bilkuretan parte hartzea : 2 inguru hilabetean, gehienetan arratsetan (orain arte ostegun arratsetan) eta lurraldeko leku ezberdinetan (Itsasu, Hazparne, ...).

ZERGATIK ENGAIATU ?



- ⚙️ **EKINTZARAKO**
Asmotik ekintzara pasatzeko, proiektutik lorpen zehatzetara.
- ⚙️ **TALDE BAT BIZIARAZTEKO**
Metodoz lan egin ikuspuntu ezberdinak kontuan hartuz, kolektiboki erabaki
- ⚙️ **SEGITZEKO, MOLDATZEKO, EBALUATZEKO**
Bidean egokitze gaitasuna atxiki : LUKE-a egokitzen ahal da, segitzen duen lurraldea bezala.

Sindikatuaren taldearekin harremanetan sartzeko : contact@scot-pbs.fr edo telefonatuz 05.59.74.02.57
LUKE-ari buruz gehiago jakiteko, eskaneatu ondoko QR kodea :
<https://www.scot-pbs.fr/>

